

# Euskal literatura itzuliari buruzko tesia<sup>1</sup>

ELIZABETE MANTEROLA (UPV/EHU)

## **Sarrera**

2012ko otsailaren amaieran itzulpengintzari buruzko tesia aurkeztu berri dut EHUko Letren Fakultatean. Ondorengo da, hain zuzen ere, tesiaren izenburua: “Euskal literatura beste hizkuntza batzuetara itzulia. Bernardo Atxagaren lanen itzulpen moten arteko alderaketa”. Honako artikulua honetan, tesiaren ikuspegi orokorra eman nahiko nuke, bai eta ateratako ondorio nagusiak plazaratu ere. Hori horrela izanik, tesiaren egitura eta metodologia ardatz hartuko ditut, ikerketa-lanaren nondik norakoak azaltzeko.

Tesiaren izenburuak ongi adierazten duenez, euskal literatur lanen itzulpena aztertzea izan da helburu nagusia, zer eta nola itzuli den ikusiz. Itzulpen mota ezberdinak identifikatu ditugunez, horien inguruko alderaketa egin nahi izan dugu. Hipotesi nagusia honakoa dugu: itzulpen mota bakoitzak emaitza ezberdina emango duela. Hau da, itzulpen mota bakoitzak azken emaitza baldintzatuko duela. Bernardo Atxagaren testuak aztertu ditugu hipotesi hori egiaztatzeko.

## **Aztergaia eta tesiaren egitura nagusia**

Literatur sistema txikietan, itzulpenak hizkuntza gutxitura itzultzen dira lehenengo, hizkuntza horretako literatur sistema abian jartzeko, aberasteko, indartzeko. Sistema finkaturik dagoenean, orduan hasten dira hizkuntza horretatik besteetarako itzulpenak egiten. Euskal literatur sistema nahiko gaztea da eta indartzen hasia dago. Hortaz, gero eta gehiago itzultzen da guretik beste hizkuntza batzuetara.

---

1. Honako artikulua hau UPV/EHUko Tralima ikerketa taldearen (IT518-10) lan ildoaren barruan kokatzen da eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren laguntza jaso du.

Itzulpengintza eta euskararen inguruko ikerketan sakontzeko asmoz hasi nintzen 2005ean doktoregoa egiten. Ordura arte, euskaratik itzuliriko literaturari buruzko hausnarketa gutxi zegoen egina eta gaiaren inguruan sakondu nahi izan genuen. Horretarako, lehenbizi zer dagoen itzulita jakin nahi izan genuen, eta Euskal Literatura Itzuliaren katalogo (ELI katalogoa) deitu duguna sortu genuen. Bilduriko datuak aztertzea izan zen lehen egitekoa. Ondorio nagusien artean itzulpen mota bat baino gehiago topatu genuen, hizkuntzaren eta sistemaren egoera diglosikoak sorraziak. Horietan sakontzeko asmoz, Bernardo Atxagaren itzulpenak ardatz hartu eta testu azterketak egitea izan da bigarren urrats nagusia.

Aipatu bi urrats nagusi horiek emateko, 11 ataletan banatu dugu tesia. Lehenengo eta behin, kultur testuingurua, alderdi teorikoa eta metodologikoa landu ditugu. Gero, tesiaren oinarri izan den katalogoa aurkeztu dugu, eta hainbat ikuspuntutatik aztertu. Katalogotik corpuserako bideari ekin diogu hurrena, eta corpusa bera hainbat ikuspegitatik aztertu, azkenik: paratestuak, lehendabizi; makroegitura, jarraian, eta alderdi mikrotestuala azkenik. Tesiaren amaieran hainbat ondoriotara iritsi gara.

Hasiera batean euskal literaturaren itzulpena bere osotasunean aztertu nahi bagenuen ere, ikerketak aurrera egin ahala mugak ezartzen joan behar izan dugu urrats bakoitzean. Bere txikitasunean, nahiko zabala baita fenomeno. Nahiz eta lehen begiratuan tesiaren garapenak nahiko jarraia ematen duen, atzera aurrerako bidea egin dugu, beste edozein ikerketa lanetan bezala. Datuak osatzen joan ahala, aurrekoak zuzentzen edo berresten joan gara, lotu gabeko puntuak ixten, eta batetik besterako etengabeko jauziak eginez maila ezberdinetako azterketetan.

Jarraian, tesian emaniko urratsak aurkeztuko ditugu labur-labur.

## ***Euskal literatura***

Esan berri dugun moduan, euskal literaturaren itzulpena ikertzea izan dugu helburu nagusi tesian, eta beharrezkoa iruditu zaigu aztergaiaren beraren testuinguruari begiratzea. Gogoan izan behar dugu, “euskal literatura” deitura horrek zentzu zabala izan dezakeela. Sistema bera ulertzeko, hortaz, bertan parte hartzen duten elementuei begiratu diegu labur-labur.

Even-Zoharrek, literatur sistemak aztertzerakoan, berauetan parte hartzen duten eragileen inguruko azterketa aurkeztu zuen. Horien inguruko azterketa bat egingo dugu jarraian balizko euskal literatur sistema hizpide hartuta. Even-Zoharrek idazlea (produzitzailea) eta irakurlea (kontsumitzailea) jartzen ditu literaturaren emaile eta hartzaile modura, eta horien artean kokatu instituzioa, produktua, merkatua eta errepertorioa. Eskema horren bitartez, “literaturaren joera soziala azpimarratzen da” (Kortazar, 2002: 18).

Gaur egun, euskal hiztun oro elebiduna da gutxienez, eta, hortaz, euskaraz idazten duten idazle guztiek ere bi hizkuntzatan idazteko aukera dute: badira euskaraz soilik idazten duten idazleak, euskaraz idatzi ondoren norberaren lana gaztelaniaritzen (edo frantseseritzen) dutenak ere badira, eta bada bi hizkuntzetan idazten duenik ere. Hizkuntza bataren zein bestearen aldeko hautua norbere arrazoen arabera egingo da.

Irakurleari dagokionez, euskal literatur hartzailea elebiduna da gutxienez. Hori horrela izanik, euskaraz gain gaztelaniaz, frantsesez edo beste hainbat hizkuntzatan jasotzen du informazioa. Jaso nahi den informazio motaren araberrako, euskarriaren araberrako zein eskuragarritasunaren araberrako hautua egingo du hartzaileak. Kultur sistema osorik ez dugunez euskaraz, kultur zein komunikazio kontsumoa hizkuntza batean baino gehiagotan egiten da. Hori horrela izanik, euskal literatura irakurtzen duena ez da bizi euskal kultura batean soilik.

Errepertorioari begiratu gero, espainiar argitaletxeen presentzia masiboaz gain, Hegoaldeko argitaletxe oso gutxi argitaratzen dituzte beraien lan guztiak euskara hutsean. Hainbat argitaletxe hemen bertan sortuak izan dira, eta beraien xede irakurleak Euskal Herrira mugatzen dira. Kasu horietan, euskal literatur sistemaren errealitateetik abiatu irakurtzen dituzte liburuak. Beste hainbat argitaletxe Espainiar etxeen azpialak dira. Kasu horietan, euskaraz argitaratuko dutena kanpo irizpideen araberrakoa izango da, eta ez dira independenteki euskal sisteman hartuak izango.

Produktzioari dagokionez, euskarazko literatur produktzio egonkor bat badela esan genezake. Euskal idazleek euskaraz zein gaztelaniaz idatzi dituzte euren lanak, eta, sarri, euskaraz ekoiztutakoa euren itzultzen dute gaztelaniara (eta kasu gutxi batzuetan, frantsesera).

Literaturaz haratago begiratu ere, bi hizkuntzatan sortzen dira testuak, eta euskararako zein euskaratiko itzulpenak guztiz presente daude gurean. Gizartearen maila eta alor guztietan, gainera. Beraz, literatur sorkuntza edo arte sorkuntza bera ere osotasun horren barruan ulertu behar dugu.

Merkatuari dagokionez, bestalde, hainbat hizkuntzako lanak eros ditzakegu irakurleok, baina euskarazkoak urriagoak dira osotasun horretan. Produktzioari dagokionez, esaterako, EAEn argitaraturiko liburu guztien %39,1 osatu zuten euskarazko liburuak<sup>2</sup>, Euskadiko Editoreen Elkartearen 2007. urteari dagokion txostenean agertzen denez.

Euskal literatura euskaraz ezaugarritzen duen literatur sistema izan arren, instituzioa bera ez da elebakarra (erakundeak, argitaletxeak, kritika, etab.). Literatura elebiduna edo hirueleduna dela esan daiteke, eta, gainera, elebidun diglosikoa. Literatura horrek beste batekin izango duen harremana, hortaz, ez da literatura elebakarrek euren artean izan dezaketenen parekoa. Egogera diglosiko horrek guztiz baldintzatuko du gainerako literaturekin izango duen harremana.

Ikus dezakegunez, euskaraz idazten den literaturak ez du sistema guztiz autonomoa osatzen, ez da sistema guztiz osoa; nolabaiteko menpekotasuna bizi du espainiar (eta neurri apalagoan frantses) literatur sistemarekiko, batik bat.

---

2. Honako helbide honetan topa daiteke datu hori: [http://www.editores-euskadi.net/images/stories/documentos/Txostena\\_EUSKADI\\_2007.pdf](http://www.editores-euskadi.net/images/stories/documentos/Txostena_EUSKADI_2007.pdf). Bestalde, kontuan izan behar da datu hori EAERI soilik dagokiola eta Nafarroan, Iparraldean edo beste hainbat tokitan argitaraturiko produktzioa ez duela bere baitan hartzen. Erakunde berak urte berean eginiko beste azterketa batek ([http://www.editores-euskadi.net/images/stories/documentos/EUSKARA\\_Txostena\\_2007.pdf](http://www.editores-euskadi.net/images/stories/documentos/EUSKARA_Txostena_2007.pdf)) euskarazko produktzio orokorra aztertu zuen. Bertan ikusiko dugu 2007an orotara 1.781 liburu argitaratu zirela, horietariko 1.478 EAEn. Beraz, eremu horrek osatzen du euskarazko produktzioaren muina.

(...) en el interior de las literaturas, como en las actividades cotidianas, sus miembros combinan los diferentes sistemas y sub-sistemas entre sí. Esto explica que tantas literaturas en las sociedades multilingües sean en realidad sistemas incompletos (estén, por ejemplo, desprovistos de redes de distribución, de manuales de poética, de enseñanza literaria, etc.) (Lambert, 1999a: 68).

Sistema ez osoa izateak eta beste sistema nagusiago baten menpeko izateak bere ondorioak izan ohi ditu. Konparazio batera, hizkuntza nagusia erabiltzea bitartekari modura itzulpenak egiteko, bai euskarara eta bai euskaratik. Bitartekaritza horrek bere ondorioak izango ditu, gainera. Esaterako, euskaratik itzultzerakoan gaztelaniazko bertsioa erabiltzeak espainiar literatur filtera pasa izana esan nahi du; hau da, erreferentziatzko liburu horien hautua gaztelaniazko literatur sistemaren harreraren eta kritikaren arabera egitea.

Bestalde, kontuan hartu beharreko nozioa dugu Āurišinek (1993) sorturiko CIE edo *communautés interlittéraires spécifiques*. Espainiar estatuko literaturen arteko harremana deskribatzeko darabil Dominguezek (2010), eta guri ere oso baliagarria iruditzen zaigu. Literatur polisistemak geruza askotako sistema konplexuak dira. Espainiar literaturaren nagusigoarekin batera, autonomia maila ezberdinekin jokatzaren beste sistemak aurki ditzakegu. Nola baita, polisistema nagusia osatzen dute guztiak: erdigunean gaztelaniazko produkzioa egonik, gainerakoak bazterreko posizioetan kokatzen dira, eta gaztelaniazko sistema horren menpeko izango dira.

Horrek guztiak erakusten duenez, euskal literaturaren errealitatea konplexua da. Eta sistema egon badagoen arren, sistemaren atal batzuetan ageriko gabeziak daude eta auzoko sistema indartsuagoekin duen harremana estua izango da, ondorioz. Hizkuntza batean baino gehiagotan funtzionatzen duenez gero, kanporako bidea are eta konplexuagoa izango da. Egileek euren lana itzuliko dute hainbatetan, hizkuntza batean baino gehiagotan idazteko gai baitira. Autoitzulpen horiek, esan gabe doa, sistema diglosikoen ezaugarri izan ohi dira. Bestalde, nahiko arrunta izaten da kanporako bidea zeharkako itzulpenen bitartez egitea, hainbat arrazoi medio: hizkuntzaren egoera diglosikoa delako, bitarteko hizkuntzaren eta sistemaren presentzia oso nabarmena delako, itzultzaile profesionalen faltagatik, etab.

Nahiz eta “euskal literatura” nozioaren barruan zer sartzen den eta zer ez zehaztea eta definizio bakar bat ematea zaila izan, gure ikergaiari hainbat muga ezarri behar izan dizkiogu. Hortaz, konplexutasun horretaz guztiaz jabeturik eta itzulpenaren ikuspegia jorratu dugunez, hizkuntzari dagokion mugaz baliatu gara. Horrenbestez, euskal literatura diogunean, euskaraz sorturikoaz aritu gara.

### **Hizkuntza diglosikoa eta kanporako itzulpena**

Bi hizkuntzaren arteko itzulpenak aztertzerakoan, agerian geratuko da bien artean indarrean dagoen botere harremana. Hori dela eta, itzulpen oro aztertzerakoan gogoan izan behar da hizkuntza bakoitzaren estatusa zer nolakoa den. Hizkuntza gutxitu batetik nagusiago baterako itzulpenean bien arteko harreman asimetrikoa gogoan izan beharko da, adibidez.

Hori horrela izanik, itzulpenak ondorio ezberdinak izan ditzake hizkuntza gutxitu batean. “Translation is both predator and deliverer, enemy and friend” (Cronin, 1998: 148). Itzulpenak balio bikoiztasuna izan dezake, eta norabide batean ala bestean bultzatzen. Itzulpenik egin ezean, ez da gainerako kulturekin inolako harremanik izango, eta ezagutzarik eza erabatekoa izango da. Itzulpen kopuru zabalegia izanez gero, aldiz, kolonizazio edo menpekotasun gehiegizkoaren arriskua hor egongo da. Hortaz, garrantzitsua izango da bi mutur horien arteko oreka bilatzea.

Euskaratik itzultzerakoan kontuan izan behar da, oro har, auzo hizkuntza nagusietara itzulzen dela batik bat, eta ez dela hain erraza beste hizkuntza batzuetara zuzenean itzultzea. Bestalde, merkatuaren legeei jarraiki, euskarazko lanak itzultzeko eskaria hutsaren hurrengoa da, eta, hori horrela izanik, jatorrizko kultura da itzulpen horiek sustatzen dituen, nolabaiteko patrosinua eginez. Xede hizkuntzak ez badu eskatzen itzulpenik, etxetik saiatzeko da horiek egiten, ikusgarritasuna eta prestigioa lortzeko. Garrantzitsua da kultura txiki edo gutxituentzat kultur politika indartsu eta egonkorra izatea horretarako. Gero eta garrantzia handiagoa ematen zaio euskal kultura kanpoan ezagutarazteari, eta kultur politika horiek sendotzen ari dira pixkanaka. Testuinguru horretan ulertu behar dugu Etxepare Institutuaren sorrera (2009), esaterako. Badira, bestalde, literatur lanak beste hainbat hizkuntzatarako itzultzeko diru laguntzak Euskal Herrian bertan. Azken urteetan, Eusko Jaurlaritzak deialdia egiten du urtero Euskal Herrian sorturiko lanen itzulpena sustatzeko<sup>3</sup>. Horretaz gain, Euskadi Literatur Sariaren oinarrietan ere, sariaren zati bat itzulpenera bideratzen da<sup>4</sup>.

Bestalde, kanonizazioa eta itzulpena loturik agertzen dira euskal literaturan. Arruntena liburu kanonizatuak itzultzea da, eta kanonizazio maila areagotzen du itzulpenak kasu horietan. Gaztelaniarako itzulpena kanonizatzen bada, ordea, edo gaztelaniazko itzulpena kanonizatu eta arrakasta izaten badu, jatorrizkoa ere nolabait kanonizatu egingo da. Hori horrela izanik, batek, Croninek aipatzen duen balio-bikoiztasuna kontuan izan beharko da: gaztelaniazkoak lagundu egingo dio euskarazkoari, baina hizkuntza horretatik abiatutako bertsoak behin betiko jatorrizko horren menpeko izango dira. Horrez gain, kanonizazio prozesua barne hausnarketak sortu beharrean, kanpotik etorriko dela ere azpimarratu behar dugu.

Aurrez aipatu ditugun sariketarako ere garrantzitsuak izan ohi dira, salmentak eta sona horien bitartez bermatzen baitira. Sari horien bultzada, ordea, ez da berdina izango saria Euskal Herrian bertan ematen bada ala Euskal Herritik kanpo. Espainiako Sari Nazionala irabazteak bultzada handiagoa eman diezaioteko idazleari Euskadi Sari irabazteak baino, adibidez. Hori horrela izanik, kanonizazio prozesua gaztelaniatik igarotzen bada, hau da, kanpotik etortzen bada, itzulpenak bizkortu egiten dira. Gaztelaniaz lorturiko arrakastak, nolabait, gainerako

---

3. 2012. urteko deialdia Etxepare Institutuak egin du, eta 44.000 euroko aurrekontua izan du. Kontuan izan behar da, euskaraz sorturiko lanek gain, EAEn gaztelaniaz sorturiko lanen itzulpena ere sustatzen dela laguntza honen bitartez.

4. 2011. urteko deialdian 18.000 euro gordinetako saria lortu zuen modalitate bakoitzaren irabazleak. “Horrez gain, saritutako lanaren egileek (euskarazko itzulpenaren kasuan salbu) beste 4.000 euro gordin ere jaso izango dituzte, saritutako lana jatorrizkoa ez den beste hizkuntza batean argitaratzeko kontratua sinatu ostean” (EHAA, 2011).

hizkuntzetarako bidea azkartzen du. Lan batek euskaraz sona handia lortzen badu, gaztelaniara itzuli, itzuliko da; baina gainerako hizkuntzetarako bidea gaztelaniaz lortzen duen sonaren menpe egongo da sarritan.

### **ELI katalogoaren azterketa**

Euskal Literatura Itzuliaren katalogoaren (ELI katalogoa) lehen itzulia 2006. urtean osatu genuen, eta orduko emaitzak *Senez*en 32. alean (2007) eman ziren argitara. 2005. urtera bitarteko itzulpenak aztertu genituen lehen itzuli hartan. Orduz geroztik, katalogoa eguneratzen jarraitu dugu, eta 2010. urtera arteko datuak aztertu ditugu doktore-tesian. ELI katalogoak 1.176 sarrera bildu ditu honako itzuli honetan. Gogora dezagun, itzuliriko liburuak soilik hartu ditugula kontuan eta, hortaz, beste hainbat euskarritan argitaraturiko itzulpenak (aldizkarietan edo webguneetan, kasu) ez ditugula bildu oraingoz. Jarraian, hortaz, itzuli honetan eginiko azterketen datu nagusiak erakutsiko ditugu labur-labur. Ikuspegi orokorra gogoraraziko dugu, datu nagusiak ez baitira gehiegi aldatu lehen itzulitik. Horretaz gain, azken 6 urte hauetan izan diren berrikuntzak eta identifikaturiko joerak ere aipatuko ditugu. Xehetasun gehiago nahi izatera, aipatu artikulua kontsulta daiteke, bai eta ELI katalogoa EHUko Euskara Institutuaren webgunean ere<sup>5</sup>.

Euskal literatura nahiko gaztea izanik eta produkzio nahiko mugatua izan duenez XX. mendearen amaiera aldera arte, kanporanzko produkzioa ere mugatua izan da ordura arte. 80ko hamarkadan hasi zen itzulpen kopurua gora egiten eta azken hamarkada honetan inoizko kopuru handiena itzuli da. Euskarak ofizialtasuna lortu izanak eta hezkuntza sisteman txertatu izanak berebiziko garrantzia izan du. Horretaz gain, 90eko urtealdian izandako igoera *Obabakoak* lanaren hedapenaren ondorio zuzen modura ulertu behar da. Aipatu goranzko joera hori mantentzen ari da azken urteetan ere.

Liburu gehien kanporatu duten autoreen artean Bernardo Atxaga, Juan Kruz Igerabide, Patxi Zubizarreta, Mariasun Landa, Anjel Lertxundi, Harkaitz Cano, Unai Elorriaga eta beste topa ditzakegu. Dena den, alde handia nabari da batzuen eta besteen artean jatorrizko izenburu kopuruaren eta itzulpen kopuruaren artean. Atxagak, adibidez, itzulpen kopuru oso zabala dauka gainerako idazleekin alderatuta. Horretaz gain, alde nabarmena dago xede hizkuntzei dagokienean ere. Estatuko hizkuntzetara egile kopuru zabal baten lanak itzuli dira, batzuk itzulpen kopuru zabalarekin, gainera; beste hizkuntza batzuetara itzuli diren egileak, berriz, askoz ere gutxiago izan dira. Gehien itzuliriko liburuen zerrendari erreparatuz gero, esaterako, lehen hamar liburuen artean Bernardo Atxagaren 9 topatuko ditugu eta Unai Elorriagaren liburu bat.

5. Honakoa da ELI katalogorako lotura: <http://www.ehu.es/ehg/eli/>. Bertan bildutako datuak urtero-urtero eguneratuko ditugu.

Bestalde, hogeita hemezortzi hizkuntza zenbatu ditugu gure katalogoan. Batzuen eta beste artean ezberdintasun handiak nabari daitezke, hala ere. Gaztelania dugu xede hizkuntza nagusia, itzulpenen %46,68rekin. Bigarren postuan katalana genuke, eta, hirugarrenean, ingelesa. Galegoa dugu hurrena, eta Europako hainbat hizkuntza jarraian: italiera, alemana edo errusiera kasu. Estatuko hiru hizkuntza nagusiek produkzio osoaren bi herenak osatzen dituzte; literatur sistema horien artean harreman estua dagoen seinale.

Generoei dagokienez, haur eta gazteei zuzenduriko 446 lan itzuli dira, eta jarraian helduentzako narratiba lanak topa daitezke. Poesia lanik ere bada itzulpenen artean (86 liburu). Gainerako generoak oso bazterrekoak dira.

Bestalde, hainbat fenomeno bereziren inguruko azterketa ere egin dugu katalogoan. Gaztelaniaratutako liburuen artean, autoitzulpena eta itzulpen alografoa, kanpo itzultzaile batek eginitako itzulpena, nahiko parean kokatu dituzte bildutako datuek, %39 ingururekin bakoitza. Autorea eta itzultzailearen arteko kolaborazio lanak nahiko bazterrekoak direla ikusi ahal izan dugu, bestetik. Dena den, kasuen %15ean ezin izan dugu datu argirik eskuratu. Informazio faltak edo datu kontraesankorrek fenomeno ez normaldu baten zantzuak erakusten dituztela irizten dugu. Bestalde, frantseserako autoitzulpenik ere topatu dugu, baina oso urriak izan dira gaztelaniarako egile-itzulpenekin alderatuz gero.

Zeharkako itzulpenaren datu bilketa oraindik eta nahasgarriagoa izan da, eta informazio garbia lortzea askoz ere zailagoa. Katalogoko sarreren ia %70ean ezin izan dugu datu argirik bildu, eta datua jaso den kasu gehienetan itzulpena zeharkakoa dela esaten da.

2010. urtera arteko datuak biltzen dituen bigarren itzuli hau 2005era arteko datuekin alderatuz zera ikusiko dugu: autoitzulpen eta kolaborazio kopuruak antzera jarraitzen duela gaztelaniaren kasuan, eta zeharkako itzulpenek ere bai, gainerakoetan. Xede hizkuntzek jaso dituzten itzulpen kopuruari erreparatuz gero ere, ez dugu nabarmentzeko moduko daturik ikusi. Autore kopurua zabaltzen ari da pixkanaka, eta gero eta egile gehiagok lortu du bere lanen bat itzultzea. Guztiz logikoa iruditzen zaigu datu hori, urtero-urtero idazle berrien liburuak topa baitaitezke merkatuan. Bestalde, generoei begiratuta ez dugu aipatzeko moduko alderik topatu: xede hizkuntzekin lotuta jarraitzen du generoen argitalpenak. HGL liburuak estatuko hizkuntzetan argitaratzen dira nabarmenki, eta gainerako hizkuntzetara heltzen diren liburuen artean gehiago dira helduentzako narratiba lanak. Bestalde, datu zehatzik eman ezin badugu ere, bada aldatzen ari den zerbait: euskarazko liburuak eta horien gaztelaniarako itzulpenak, helduei zuzenduriko narratiba lanak batez ere, gero eta tarte txikiagoz argitaratzen dira. Kasu batean baino gehiagotan ikusi dugu azken aldian, euskaraz argitaratzearekin batera argitaratu dela gaztelaniarako itzulpena. Atxagaren *Zazpi etxe Frantzian* edo Lertxundiren *Etxeko hautsa*, kasu. Edo jatorrizkoaren oso jarraian argitaratu dira beste hainbat itzulpen, hilabete gutxiko aldearekin.

### **Katalogotik corpuserako bidea**

Tesiaren asmo nagusia euskal literaturaren itzulpenera lehen hurbilketa egitea izan da, zer eta nola itzuli den aztertuz. Zer itzuli den aztertzeko ELI katalogoa erabili dugu, itzuliriko liburuen datu orokorreari begiraturaz. Itzulpenen nolakotasuna aztertzeko, ordea, testu mailako azterketak egin ditugu, corpus murriztu bat erabiliz horretarako. Corpus horretan bilduriko liburuak katalogoko ondorioen arabera hautatu ditugu. Hori horrela izanik, autore bakarraren lanak hartu ditugu kontuan, Bernardo Atxagarenak, bere itzulpenetan fenomenoaren konplexutasuna biltzen baita. Egokia iruditu zaigu autore bakarraren lanak biltzea testu azterketarako. Kontuan izan behar da, gainera, katalogoaren azterketak erakutsi diguna: alde handia dago aipatutako autorearen eta gainerakoaren artean (jatorrizko kopuruan, xede hizkuntza kopuruan, itzulpen kopuruan, etab.).

Atxagaren 35 jatorrizko lan itzuli dira, eta 31 izan dira xede hizkuntzak. Guztira, 180 itzulpen zenbatu ditugu. Generoei dagokienez, haur eta gazte literatur liburuak kanporatu ditu gehien, 23 guztira. Hala ere, itzulpen gehien izan dituzten liburuen artean, helduentzako narritiba liburuak nabarmentzen dira.

Kronologiari begiraturaz gero, 1978. urtean argitaratu zuen lehen jatorrizko liburua (*Etiopia*) eta 2009an azkena (*Zazpi etxe Frantzian*). 80ko hamarkadan bere lanen oso itzulpen gutxi argitaratu zen. *Obabakoak* argitaratu eta gaztelaniaratu ondoren hasi ziren gainerako itzulpenak ugaltzen, Espainiako Narratiba Saria medio. Aurrez argitaraturiko hainbat lan ere itzuli ziren horren kariatara, *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* edo *Sugeak txoriari begiraten dionean*, kasu.

Atxagaren itzulpen guztiek testu-masa zabalegia osatzen dutenez azterketa testual egoki eta osatua egiteko, zertxobait murriztu dugu corpus mugatu baina errepresentagarria osatzeko asmoz. Gehien itzuliriko lanak eta lan gehien jaso dituzten hizkuntzak bildu ditugu behin betiko corpus horretan: 12 jatorrizko lan<sup>6</sup> eta 8 hizkuntza<sup>7</sup>. Milioi eta erdi hitzetik gorako corpora, guztira.

### **Azterketa paratestuala**

Liburuek eskaintzen duten informazioari esker ezagutu ohi da itzulpen mota. Hori zehaztea, ordea, ez da hain erraza suertatu, ez Atxagaren liburuen kasuan, ezta katalogoko datuak zehazterakoan ere. Hori dela eta, Atxagaren itzulpenen paratestuetan ageri diren datuen inguruko azterketa egin nahi izan dugu, bere liburuak beste hainbat hizkuntzatan nola aurkezten diren ikusteko. Liburuetan itzulpenaren berri ematen ote den begiratu dugu, eta informazioa zein modutara eskaintzen den aztertu.

6. *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian*, *Sugeak txoriari begiraten dionean*, *Bi anai*, *Obabakoak*, *Behi euskaldun baten memoriak*, *Gizona bere bakardadean*, *Zeru horiek*, *Xolak badu lehoien berri*, *Xola eta basurdeak*, *Sara izeneko gizona*, *Bambulo Lehen Urratsak* eta *Soinujolearen semea*.

7. Jatorrizko euskara eta gaztelania, katalana, galegoa, frantsesa, ingelesa, alemana eta italiara xede hizkuntzak.



Aipatu bezala, azterketa paratestual orokor bat egiteko Atxagaren 161 argitalpen kontsultatu ditugu xede hizkuntzetan, eta horien inguruko datuak erakutsiko ditugu jarraian.

Atxagaren lanetan, itzulpena ia beti aitortzen da. Kontsultaturiko 161 argitalpenetatik 16 kasutan soilik ez da hala izan: horietatik 14 gaztelaniazko liburuak izan dira, eta 2, katalanezkoak. Nahiko deigarria iruditu zaigu datua, harreman sistematiko handiena erakusten duten literatur sistemak baitira itzulpena aitortzeko zailtasun handiena erakusten dutenak. Sistema horien arteko harremanak besteen modukoak ez diren seinale izan daiteke hori.

Gaztelaniarako itzulpenak bazter utzirik, gainerako xede hizkuntzetako argitalpenen azterketa ere egin dugu. Zeharkako itzulpenak izan daitezkeela kontuan izanik, peritestueta jatorrizko zein izen ageri den begiratu dugu, eta lau aukera posible topatu ditugu: biak agertzea (35 kasutan), bietakoren bat agertzea, euskarazkoa izan (30 aldiz) edo gaztelaniazkoa (beste 30 kasutan), edo bat bera ere ez agertzea (17 kasutan). Aukera guztiak nahiko parean ageri dira, emandako datuen arabera. Kasuistika zabala dugu, beraz. Gainera, kasuak banan bana begiraturaz, bi izenburuak agertzen diren kasu ia guztiak helduei zuzenduriko lanak izan direla ohartu gara.

Gaztelania ez beste xede hizkuntzei dagokienez, itzulpenak zuzenak ala zeharkakoak izan daitezke. Begiratu ditugun liburuen %57,75ek aitortzen du gaztelania erabili duela itzulpena egiteko iturri modura. Gaztelaniazko bertsioaren erabilera aitortu arren, lan hori jatorrizko modura edo bitarteko bertsio modura aurkez daiteke, edo argi eta garbi erakutsi ez, zer mota-tako testua izan den.

Ondorioz, itzulpen prozesua nahiko lauso erakusten zaio irakurlari, azterketa paratestualak erakutsi digunez.

Eman berri ditugun datu orokorrak banan bana begiratu ditugu corpuseko liburuetan, eta adibide batzuk erakutsiko ditugu jarraian. Gurearen moduko literatura gutxitu eta diglosikoen irudia itzulitako liburuetan eskaintzen den datu horien bitartez zabaltzen da hein batean. Hori dela eta, interesgarria iruditu zaigu beste hizkuntza batzuetako irakurleek zer jaso duten aztertzea.

Badira datuak xehetasun osoz ematen dituzten liburuak. *Soinujolearen semea* liburuaren alemanerako itzulpena (*Der Sohn des Akordeonspielers*) dugu horren adibide. Honakoa irakur daiteke liburuan:

Die baskische Originalausgabe erschien 2003 unter dem Titel *Soinujolearen semea*

In Absprache mit dem Autor liegt der deutschen Übersetzung die spanische Übersetzung von Asun Garikano und Bernardo Atxaga zugrunde (*El hijo del acordeonista*)

Beste hainbat kasutan, erabilitako bertsioa zein izan den esanagatik ere, ez da zeharkakotasunaren inguruko berariazko azalpenik ematen, *Bi anairen* frantseserako itzulpenean (*Deux frères*) kasu.

Traduit de l'espagnol par André Gabastou

Titre original: *Bi anai* (*Dos Hermanos*)

Datu horiez gain, jatorrizkoaren argitalpen datuak gaztelaniazko bertsioari dagozkio liburu horretan: Ollero y Ramos, 1995.

Beste batzuetan, ordea, itzultzailearen izena eta jatorrizkoaren izenburua soilik agertuko dira, itzulpen mota inondik inora aipatu gabe. Halakorik gertatu da, konparazio batera, *Soinujolearen semea* liburuaren katalanerako itzulpenean (*El fill de l'acordeonista*).

Traducció de Pau Joan Hernández

Títol original en èuscar: *Soinujolearen semea*

Aipatutako liburu horretan, gainera, ez da inongo jatorrizkoren argitalpen daturik ageri. Hori horrela izanik, liburu euskaratik zuzenean itzuli dela iradokitzen da.

Kasuren batean edo bestean, itzulpena denik ere ez da aitortu. *Zeru horiek* gaztelaniaz argitaratu zenean 1996an (*Esos cielos* izenburuarekin), liburuaren peritestueta ez zen ageri itzulpenaren berririk. 12 urte beranduagoko berrargitalpen batean aitortu da lehenengoz itzulpena.

Azkenik, datu kontraesankorrik ere topatu dugu; *Gizona bere bakardadean* liburuaren katalanerako itzulpenean, kasu. Hiru argitaletxek eman zuten argitara itzulpen hori katalanez: batean, itzulpena euskarazkotik egin zela aitortzen da; beste batek, ordea, gaztelaniazko testua erabili dela itzulpenarako; hirugarrenak, berriz, ez du iturri bertsioaren zehaztapenik egin<sup>8</sup>.

Ikus dezakegunez, datuak oso modu ezberdinetara ager daitezke. Kasuan kasu, irakurleak xehetasun gehiago ala gutxiago jasoko du, eta modu argian edo lausoagoan ikusiko du bere eskuetara iritsi arte zein bide egin duen testuak.

Datu-saltsa hori ikusirik, ezin izan dugu itzulpen moten sailkapena guztiz osatu perites-tuen azterketaren bitartez. Hori dela eta, beste hainbat iturritara jo behar izan dugu, hala nola artikulu edo argitalpen espezializatueta, prentsa arrunteko elkarrizketa zein erreportajeeta. Egilearengana edo itzultzailearen batengana ere jo dugu itzulpen prozesuaren nondik norakoez galdetzeko.

Liburuetatik jasotako datuekin eta aipatu iturrietatik lorturikoekin itzulpen moten mapa osatzen saiatu garen arren, oraindik ere hainbat kasu geratu dira argitzeko: gaztelaniaz, katalanez, galegoz eta italieraz, batez ere. Hori dela eta, testu azterketetara igaro behar izan dugu itzulpen motak zehazte aldera, baita horien arteko alderaketa egiteko ere.

### **Testu azterketa**

Corpuseko testuak maila ezberdinetan aztertu ditugu, kanpotik barrurako bidea eginez: egitura nagusitik hasi gara eta maila mikrotestueralaino igaro, ondoren. Fase bakoitzean datuak osatzen, zuzentzen edo berresten joan gara, kate bat osatuz. Urrats batetik bestera nola igaro garen erakutsiko dugu jarraian, eta maila bakoitzean eginiko azterketen adibide batzuk ere erakutsiko ditugu.

8. Kasu honen inguruko informazio zabalagoa Manterola (2009) artikuluan topa daiteke.

## 1. Maila makrotestuala

Testuen egitura nagusiari begiratu diogu lehenik eta behin, bi urrats nagusi emanez horretarako: liburuaren izenburuak nola itzuli diren aztertu dugu batetik, eta liburuaren barne egiturari erreparatu diogu bestetik, aurkibideak zein paragrafo kopuruak alderatuz.

Izenburuei begiratu gero, *Sugeak txoriari begiratzen diorean* gaztelaniaz laburtu egin dela ohartuko gara (*Cuando la serpiente...*), eta, ondorioz, baita katalanez eta italieraz ere<sup>9</sup>. Alabaina, katalanezko bigarren itzulpenean, galegozkoan eta ingelesezkoetan euskarazkoaren antzerako egitura mantendu dute<sup>10</sup>. Katalanez eta galegoz ezin izan dugu iturri testua zehaztu orain arte; beraz, honek itzulpen bidearen zantzuren bat eman diezaguke.

Bestalde, *Behi euskaldun baten memoriak* liburuaren gaztelaniarako itzulpenean “euskaldun” izenondoa ezabatu egin da, eta, ondorioz, baita gainerako xede hizkuntzetan ere. Alemanezkoan izenburua mantendu egin da, ordea: *Memoiren einer baskischen Kuh*. Kakofonia izan daiteke aldaketa hori gertatzeko arrazoia (Atxaga 1994: 44). Dena den, pisu handiagoko faktoreak ere egongo direla pentsa dezakegu, alderdi ideologikoari lotuak. Halako kasuek idazlearen parte-hartzea iradokitzen dute, beste itzultzaile batek ez bailuke bere kabuz halako erabakirik hartzeko eskumenik izango.

Liburuaren egituraketari dagokionez ere, topatu dugu alde nabarmenik. *Obabakoak* liburuaren kasua, esaterako. Itzulpen prozesu oso konplexua izan zuen liburu horrek, Narratiba Sariarako zatika itzultzen joan baitzen hasieran autorea, eta hainbat itzultzailearen laguntzaz ondoren<sup>11</sup>. Saria lortu ostean, goitik behera zuzendu zuen autoreak berak itzulpena liburu modura argitaratzeko. Prozesu korapilatsu haren emaitza euskarazkotik nahiko ezberdina da: kapitulu bat gutxiago ageri da gaztelaniaz; ipuinen ordena aldatu egin da; ipuinen izenburuetan ere aldaketak egon dira; euskaraz ordena alfabetikoan ageri dira ipuinak; gaztelaniaz, ordea, ez. Nabarmenezkoa da liburu honen itzulpen guztiak gaztelaniazkotik eginak izan direla. Bitarteko bertsio horretatik corpuseko gainerako xede hizkuntzetara ez dugu alde nabarmenik topatu.

Azterketa makrotestuarean lortutako datuekin itzulpenen mapa osatzen joan bagara ere, oraindik ere zalantzarik kasuak geratu zaizkigu, nahiz eta zantzu nahiko garbiak izan hainbatetan itzulpen mota zehazteko.

## 2. Maila mikrotestuala

Maila mikrotestuarean eginiko azterketak ere bi motatakoak izan dira. Batetik, corpusaren lagin multzo bat hartu eta horren deskribapen jarraitua egin dugu, testu batetik besterako eral-

---

9. *Quan la serp...* eta *Quando un serpente...* hurrenez hurren.

10. *Quan la serp mira l'ocell*, katalanez; *Cando a serpe mira o paxaro*, galegoz, eta *When the Snake Stares at the Bird*, ingelesez.

11. *Obabakoak*-en itzulpen prozesuaren azalpen zabalagoa topa daiteke Juan Garziak *Senex* aldizkarirako autoreari eginiko elkarrizketan (1990).

daketak identifikatze aldera; bigarrenik, bi azterketa espezifikoko gauzatu ditugu, corpora bere osotasunean harturik.

Maila honetan, itzulpenen izaerari buruz geneuzkan azken zalantzak edo aurreko faseetan geneuzkan zantzuak berretsi, zuzendu edo argitu ahal izan ditugu, zeharkako edo zuzenekotasunari dagokionez batez ere.

Aipatu lehen urratsean, deskribapen jarraitua deitu dugun horretan, esaldiz esaldi alderatu ditugu testu laginak. Horietan topaturiko aldeak hiru multzo nagusitan banatu ditugu: gehikuntza, kenketa eta itzulpen sortzailea. Laginen azterketa honen bitartez, modu orokorrean begiratu diogu corpusari eta itzulpenen izaera orokorra ezagutu ahal izan dugu. Bestalde, hainbat alderdi deigarri identifikatu dugu. Eta horien artean bi hautatu ditugu azterketa testuala egiteko: izen bereziak, batetik, alderdi pragmatikoa lantzeko; koloreak, bestetik, alderdi semantikoa jorratzeko.

Izen berezien azterketari dagokionez, horiek banan bana topatu behar izan ditugu testuetan lehenik eta behin, bai jatorrizkoetan eta bai itzulpenetan. Ondoren, itzulpen estratégiaren arabera sailkatu ditugu: transferentziak, egokitzapenak, itzulpen linguistikoak eta itzulpen sortzaileak. Itzulpen batzuk euskarazkotik eginak izan direnez eta beste batzuk gaztelaniazko testutik, gainerako hizkuntzetako itzulpenen alderaketa bi testuekin egin dugu.

Liburuz liburu eta hizkuntzaz hizkuntza joera ezberdinak identifikatu ditugu. Esaterako, *Sara izeneko gizona* liburuaren autoitzulpen prozesu konplexuan eraldaketa oso gutxi izan da, gaztelaniarako gainerako itzulpenekin alderatuz. Aldiz, *Bi anai* edo *Sugeak txoriari begiratzen dionean* liburuen kasuan, eraldaketak oso nabarmenak izan dira: lehenengoan, 10 izen berezi zeuden jatorrizkoan eta gaztelaniazkoan 15 ageri dira; bigarrenean, berriz, 6 itzulpen sortzaile topatu ditugu. Tartean, pertsonaia baten izen aldaketa: euskaraz Mariatxo izeneko pertsonaia Marta bihurtu da gaztelaniazkoan.

Bestalde, gainerako hizkuntzei dagokienez, galegoz oro har egokitzapenerako joera nabaritu dugu, eta katalanez euskal izenak bere horretan mantentzeko. Gaztelaniarako testuek, oro har, sorkuntzarako joera nabarmenagoa erakutsi dute gainerako hizkuntzetarako itzulpenekin alderatuz gero.

Azken elementu gisa koloreak aztertu ditugu. Hizkuntza eta kultura bakoitzean karga semantiko handia bildu ohi dute koloreek. Horrexegatik, oso presente izan dugu euskal usadioan nola erabili izan diren, gure corpusean duten erabilera ulertze aldera.

Bi urrats nagusi eman ditugu koloreak aztertzeko: lehenik eta behin, Berlin eta Kay ikertzaileek proposaturiko hamaika koloreen zerrenda hartu dugu<sup>12</sup>, eta horiek hizkuntza bakoitzean zenbat aldiz erabili diren ikusi. Nahiko agerian utzi digu horrek, batetik, kolore batzuen eta besteen artean alde handiak daudela erabilpen kopuruari dagokionez; bestetik, bilaketa egiteko hainbat arazo ere azaleratu ditu, hala nola lematizazio falta.

12. Honakoak dira 11 kolore horiek: arrosa, beltza, berdea, gorria, grisa, horia, laranja, marroia, morea, urdina eta zuria.

Azterketa xehea egiteko, hortaz, arazoak eman dizkigutenak eta gutxien erabiltzen direnak bazter utzirik, 5 koloretara mugatu dugu azterketa eremua: beltza, zuria, gorria, berdea eta urdina. Hautaketa egin ondoren, aipatu koloreak euskarazko testuetan bilatu ditugu, eta banan bana aztertu, kolorea mantendu, eraldatu ala ezabatu egin den jakiteko. Sinbologia nahiko zabala daukate hautatutako koloreek euskaraz, eta, horregatik, zaila izaten da sarritan koloreari erreferentzia mantentzea beste hizkuntza batzuetan. Beste kasu batzuetan, sorkuntzarako joera nabaritu dugu gaztelaniazko testuetan. Esaterako: euskaraz “horiaren eta beltzaren arteko tonalitateak” zituen zeruak, gaztelaniazkoan “tonalidades rojizas” hartu ditu *Obabakoak* liburuan, eta, ondorioz, baita gainerako hizkuntzetan ere.

Testu mailako azterketak egin ostean, itzulpen moten inguruko informazioa osatu ahal izan dugu. Gaztelania ez gainerako hizkuntzen kasuan zeharkako eta zuzeneko itzulpenak argi eta garbi identifika daitezke. 56 itzulpenetatik 5 itzulpen zuzen soilik identifikatu ditugu eta beste 5 itzulpen<sup>13</sup> jatorrizko konpilatua darabiltenak, hau da, euskarazko zein gaztelaniazko testuak biak ala biak erabiliz eginak. Gaztelaniazko liburuaren kasuan, ordea, ez da erraza autoitzulpena, kolaborazioa edo itzulpen alografoen artean ezberdintzea.

### **Ondorio orokorrak**

Atal honetan gure ikerketa lanaren ondorio nagusiak aurkeztu nahi genituzke.

Gogora dezagun, honako ikerketa-lanaren oinarri nagusia euskaratik eginiko itzulpenen azterketa izan dela. Katalogazio lanak azken 20 urteetan sendotzen joan den kultur fenomeno baten berri eman digu. ELI katalogoan bilduriko datuek eta horien azterketak zera erakutsi digute: euskal literaturak bide ezberdinak hartzen dituela itzulpenetan.

Katalogoaren azterketak nabarmen erakutsi digu desoreka dagoela xede hizkuntzen artean, estatuko eta gainerako hizkuntzak alderatuz gero. Gaztelaniara eginiko itzulpenek produkzio osoaren ia erdia hartzen dute, eta, beraz, sistema horrenganako menpekotasuna dagoela iradokitzen digu horrek.

Autoreei dagokienez, euskal sistema nahiko desorekatua da kanporatzeko bideari erreparatuz gero. Atxagaren lanen itzulpenen eta gainerako idazleen arteko aldea nabarmena da. Horrek euskal literaturaren barne eta kanpo irudien arteko desoreka bat islatzen du. Adibidez, ia-ia Atxaga soilik dago eskuragarri beste hainbat hizkuntzatan.

Katalogoari erreparatuz gero, ondorio orokor gisa esan genezake, itzulpenak modu ezberdinetara egiten direla, eta xede hizkuntzaren araberrako joerak nabaritzen direla: autoitzulpenak, kolaborazioak eta itzulpen alografoa dauzkagu gaztelaniaz, batik bat; gainerako hizkuntzetara zuzeneko edo zeharkako itzulpenak egiten dira. Nabarmen zehaztea zaila bada ere, lehen zantziek erakusten dute zeharkakoen presentzia nabaria dela gaztelania ez beste hizkuntzetan.

---

13. Katalanera eginikoak guztiak ere.

Bestalde, katalogo mailan zailtasunak izan ditugu itzulpen mota kasuz kasu identifikatzeko. Datu hori osatze aldera liburuetara jo dugu, paratestuetara hain zuzen. Horretarako, baina, corpus mugatuago batetara igaro gara, aurrez ikusi dugun moduan. Paratestuen azterketan ikusi ahal izan dugunez, liburua aurkezteko eta, horrekin batera, itzulpena aitortzeko modu ugari dago. Hori horrela izanik, gaztelania ez gainerako hizkuntzetan jatorrizko modura gaztelaniazko testua ageri den kasu guztietan, hala izan dela ikusi dugu, baina euskarazkoaren izenburua ageri denetan, ez du zertan hala izan. Informazio osatua ez ematea, edo informazio kontraesankorra eskaintzea kasuan kasu, euskal sistemaren konplexutasunaren isla izan daiteke: euskarazko izenburuaren ordez gaztelaniazkoa agertzea, itzulpenetarako erabili den hizkuntza zein izan den ez zehaztea, zeharkakotasuna ezkutatu nahi izatea edo gaztelaniarako itzulpenen kasuan, itzultzaile izenik ez agertzea, adibidez.

Paratestuen azterketaren bitartez ezin izan dugu itzulpen moten identifikazioa guztiz osatu, eta beharrezkoa izan da beste maila batzuetara igarotzea. Maila honetan jasotako datuek erakutsi digutenez, estatu mailako itzulpenetan geratu da argitzeko datu gehien. Argi iragartzen da maila horretan, beraz, modu ezberdinetan jokatzen dutela estatuko hizkuntzek eta gainerakoek.

Azterketa testualaren atal ezberdinetan eginiko azterketetan nabaritu dugunez, gaztelaniara eginiko itzulpenetan, egilea beti izan da itzulpen prozesuaren parte neurri batean edo bestean. Ondorioz, ezin izan dugu autoitzulpena, elkarlanaren eta itzulpen alografoaren arteko alde nabarmenik identifikatu. Beste hizkuntzetarako itzulpenei erreparatuta, zeharkako itzulpena izan da arau Atxagaren lanen itzulpenetan.

Bestalde, itzulpenaren hasierako arauari begiratuz gero, gaztelaniarako itzulpenetan, idazle-itzultzaileak onargarritasunaren muturrera lerratu dira nabarmen. Gainerako hizkuntzetarako itzulpenei dagokienez, berriz, itzultzaileek gertutik jarraitu diote erabili duten iturri-testuari, izan euskarazkoa edo gaztelaniazkoa. Horrek guztiak testua eraldatzeko eskumenari buruzko hainbat galdera uzten ditu irekita, baita hizkuntza parearen arteko harremanari buruzkoak ere.

Eginiko azterketek hasiera batean aurreikusitako ez genuen itzulpen mota bat ere erakutsi digute: jatorrizko konpilatua darabilten itzulpenak. Itzultzaileak bi testu ditu eskura: euskarazko jatorrizkoa eta autorearen eskuetatik igaro den gaztelaniazko itzulpena. Aipatu kasu hori, katalanezko hainbat itzulpenetan identifikatu dugu gure corpusean, baina ez dugu sakonki aztertzeko aukerarik izan. Aurrerantzean aztertu beharreko itzulpen bidea iruditzen zaigu.

Eginiko azterketek erakutsi diguten moduan, euskal literatur sistemaren izaera diglosiko eta ez osoak guztiz baldintzatzen du literatura horrek beste hizkuntza batzuetan hartzen duen forma eta irudia. Hori horrela izanik, errealitate sistemiko desorekatua kontuan izan behar da Atxagaren lanen itzulpenetan testu mailan gertatzen dena ulertzeko: autoitzulpenaren presentzia nabarmena, onargarritasunaren araura lerratzea gaztelaniarako itzulpenetan, zeharkako itzulpenaren nagusigoa, etab.

Ageri-agerikoa dugu euskal sistemak autonomia mugatua duela eta inguratzen dituen literatur sistema boteretsuekiko menpeko dela neurri batean.

### **Aurrera begira**

Edozein ikerketa lanek mugak ezartzea dakar. Artikuluan zehar ikusi dugunez, abiapuntu-tik bertatik hasi eta urratsez urrats aurrera egin ahala, mugak ezartzen joan behar izan dugu, eta horrekin batera, hainbat gauza aztertzeke utziz eta hainbat galdera erantzuteke. Azken atal honetan, hortaz, hemendik aurrera gaiaren inguruan hausnarketa zabalago baterako geratu zaizkigun gaiak aipatuko ditugu, bai eta irekita geratu diren lan-ildoak ere.

Katalogazio mailan, ELI katalogoa eguneratzen jarraitzeke beharra nabarmendu nahiko genuke. Lan horri dagoeneko ekin diogu 2011. eta 2012. urteetan argitaraturiko liburuen datuak bilduz. Horretaz gain, ordea, beste hainbat euskarritan argitaraturiko lanak ere biltzea egokia izango litzateke, hala nola aldizkarietan zein sarean. Literatura itzuliaren ikuspegi orokor eta osatu bat lortuko genuke horrekin.

Bestalde, tesiaren helburua zer itzuli den aztertzea izan da, baina interesgarria izango litzateke, halaber, zer itzuli ez den eta zergatik ezagutzea ere.

Itzulpen bideei dagokienez, berriz, ikerketa guztiz irekita dagoela uste dugu, eta horien inguruko azterketa bultzatu nahiko genuke hemendik: zein egoeratan sortzen diren, zergatik egiten diren modu batean edo bestean, zein esparrutan dagoen mota bateko edo besteko itzulpen gehiago, etab.

Literaturaren alorrean, egileek itzulpenaren aurrean duten jarrera aztertzea ere interesgarria izango litzateke, idazleak itzulpenarekiko edo autoitzulpenarekiko duen jarrerak kanporako bidea baldintzatzen ote duen ikusiz, edo itzulpenak sorkuntzan zer nolako eragina duen aztertuz.

Aurkeztu berri dugun tesian Atxagaren obra izan dugu testu azterketaren ardatz. Egile horrekin ikusirikoa gainerako euskal idazleekin zenbateraino gertatzen den ikusi beharko litzateke, hemen aurkezturiko datuak antzerakoak diren ala ez jakiteko.

Itzulpenak egiteko patrozinoari begiratuta, etorkizunean kultur politika egokiak sortu beharko liratekeela uste dugu eta itzulpena nor, nola eta zergatik sustatzen duen ikusi, eta horretan hausnartu. Euskal literaturaren aniztasuna islatzeko jarrera eta euskal literatura beste hizkuntzetara zuzenean itzultzearen aldeko jarrera sustatu beharko lirateke, gure iritziz.

Oro har, esango genuke itzulpen ikasketa deskribatzaileetan sakontzen jarraitzeke beharra dagoela gurean, bai guk egin bezala literaturaren alorrean, eta bai gizartearen beste hainbat eremutan ere, izan kulturaren beste hainbat alorretan (ikus-entzunezkoan, antzerkian, musikan, etab.) edo itzulpengintzak gure gizartean presentzia erabatekoa duen beste hainbat eremutan ere (administrazioan, publizitatean, etab.). Itzulpenen azterketak errealitatea hobeto ulertzen lagun diezaguke. Hortaz, gure tesiaren azken esaldia errepikatu nahiko genuke hemen: izan bedi guk eginiko lana etorkizunean egingo diren beste hainbaten aurrekari.

## BIBLIOGRAFIA

- Atxaga, B. (1994). “Conferencia de Bernardo Atxaga”. *Vasos comunicantes* 4. <http://revistavasoscomunicantes.blogspot.com.es/2011/03/vasos-comunicantes-numero-4.html>
- Atxaga, B. (1995). *L’homme sol*. Barcelona, Edicions Columna.
- Atxaga, B. (1995). *L’homme sol*. Alzira, Bromera.
- Atxaga, B. (1996). *L’homme sol*. Barcelona, Cercle de Lectors.
- Atxaga, B. (1996). *Deux frères: chant quatrième*. Paris, Christian Bourgois.
- Atxaga, B. (1996). *Esos cielos*. Barcelona, Ediciones B.
- Atxaga, B. (2004). *El fill de l’acordeonista*. Barcelona, Edicions 62.
- Atxaga, B. (2006). *Der Sohn des Akkordeonspielers*. Frankfurt am Main, Insel.
- Atxaga, B. (2008). *Esos cielos*. Madrid, Punto de Lectura.
- Berlin, B. eta Kay, P. (1969). *Basic color terms: their universality and evolution*. Berkeley, University of California.
- Dominguez, M. (2010). “Fenómenos de traducción frecuentes entre literaturas de una misma comunidad interliteraria específica”. Enric Gallén, Francisco Lafarga eta Luis Pegenaute (editoreak) *Traducción y autotraducción en las literaturas ibéricas*. Berna: Peter Lang.
- EHAA (2011). *Agindua, 2011ko apirilaren 13koa, Kulturako sailburuarena, Euskadi literaturariak arautu eta horretarako dei egiten duena*. Kultura Saila. Vitoria-Gasteiz.
- EHAA (2012). *Ebazpena, 2012ko martxoaren 20koa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, literatura itzulpenetarako diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duena*. Etxepare Euskal Institutua. Donostia.
- Even-Zohar, I. (1990). “Polysystem Studies”. *Poetics Today* 11:1.
- Garzia (1990). “Atxagarekin Obabakoaken itzulpenaz”. *Senez* 9, 13-24.
- Kortazar, J. (2002). *Diglosia eta euskal literatura*. Donostia, Utriusque Vasconiae.
- Lambert, J. (1999). “Aproximaciones sistémicas y la literatura en las sociedades multiculturales”. *Teoría de los polisistemas*. M. Iglesias. Madrid, Arco/Libros, 53-70.
- Manterola, E. (2011). *Euskal literatura beste hizkuntza batzuetara itzulua. Bernardo Atxagaren lanen itzulpen moten arteko alderaketa* (argitaragabeko doktore-tesia).
- Manterola, E. (2009). “Literatura vasca traducida al catalán”. Enric Gallén, Francisco Lafarga, Luis Pegenaute (edk), *Traducción y autotraducción entre las literaturas ibéricas*, Berna, Peter Lang, 159.-173. or.
- Manterola, E. (2007). “Euskal literatura beste hizkuntzetara itzulua”. *Senez* 32. <http://www.eizie.org/Argitalpenak/Senez/20080201/manterola>



### **Comparación entre distintos tipos de traducción de la obra de Bernardo Atxaga**

Este artículo resume la tesis doctoral titulada “Euskal literatura beste hizkuntza batzuetara itzulia. Bernardo Atxagaren lanen itzulpen moten arteko alderaketa” (“Literatura vasca traducida. Comparación entre distintos tipos de traducción de la obra de Bernardo Atxaga”). Para llevarla a cabo, hemos completado un catálogo que recoge las obras traducidas y lo hemos analizado desde diferentes perspectivas: autores, títulos, lenguas meta, etc. En el análisis del catálogo se identifican diferentes tipos de traducción, por lo que en una segunda fase el objetivo es analizar y comparar distintos tipos de traducción. Mediante un corpus reducido de varias obras de Bernardo Atxaga se describen las diferencias entre la autotraducción, la colaboración y la traducción alógrafa, y se comparan entre traducciones directas e indirectas. La hipótesis principal es que cada tipo de traducción ofrece un resultado diferente.

### **Comparaison des différents types de traduction de l'œuvre de Bernardo Atxaga**

Cet article résume la thèse de doctorat intitulée “Euskal literatura beste hizkuntza batzuetara itzulia. Bernardo Atxagaren lanen itzulpen moten arteko alderaketa” (Littérature basque traduite. Comparaison des différents types de traduction de l'œuvre de Bernardo Atxaga). Pour ce faire, nous avons élaboré un catalogue des œuvres traduites et nous l'avons analysé suivant des critères différents : auteurs, titres, langues cible, etc. Nous distinguons plusieurs types de traduction que nous étudions et comparons dans une deuxième phase. Ainsi, l'étude comparative d'un corpus réduit de plusieurs travaux de Bernardo Atxaga nous permet de déceler les différences entre l'auto-traduction, la collaboration et la traduction allographe, et de comparer les traductions directes et indirectes. La principale conclusion qui se dégage de cette étude est que chaque type de traduction aboutit à un résultat différent.

### **A Comparison of Different Types of Translation of the Works of Bernardo Atxaga**

This article summarizes the doctoral thesis entitled “Euskal literatura beste hizkuntza batzuetara itzulia. Bernardo Atxagaren lanen itzulpen moten arteko alderaketa” [“Basque Literature in Translation. A Comparison of the Different Types of Translation of the Works of Bernardo Atxaga”]. In order to conduct this analysis, we compiled a catalog of translated works and analyzed it from different perspectives: authors, works, target languages, etc. Different types of translation were identified in the analysis of the catalog. In the second phase, our purpose was to analyze and compare different types of translation. Using an abridged corpus consisting of various works by Bernardo Atxaga, we describe the differences among self-translation, collaborative translation and independent translation, and compare direct and indirect translations. Our primary hypothesis is that each type of translation produces a different result.

